

IKASTETXEA	BIURDANA BHI	KODEA	51 2B 01ZUZ
IZENBURUA	XAKE TXAPELKETA	MAILA	DBH1
IRAKASLEA	<i>ANDONI CALVO</i>	IKASGAIA	HA

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.



XAKE TXAPELKETA

BIURDANA BHI-KO XAKE TXAPELKETARAKO ARAU ZEHATZAK

1. Txapelketan parte hartzeko orria gelako ordezkariak jasoko du eta antolatzaileei emango die. Ondoren, antolatzaileek bikoteak antolatuko dituzte.
2. Izena ematen duen bikote kopuruak erabakiko du zenbat kanporaketa egin.
3. Bikote bakoitzak lehenengo kanporaketako partida amaitzen duenean, irabazlearen izena txapelketa arduradunei jakinaraziko die. Partida guztiak amaitutakoan, irabazleen artean zozketa egingen da, bigarren partida jokatzeko. Bikoteak zein izango diren kartelean iragarriko da.
4. Lehendabiziko kanporaketa irabazi dutenen artean egingo da bigarren zozketa. Ateratzen diren bikote berriek bigarren kanporaketa jokatuko dute. 3. eta 4. urratsak berriro jarraituko dira, lehiaketa amaitu arte.
5. Kanporaketa ezberdinetan jokalarien kopurua bakoitia izanez gero, zozketaz aukeratu jokalaria bat hurrengo kanporaketara pasatuko da.
6. Partida bakoitzak, azkenekoak salbu, 30 minutu iraungo du, gehienez. Azkenekoak, berriz, 40 minutu. Zehaztutako denboran partida ez bada bukatu, jandako fitxen puntuazioaren arabera erabakiko da zein den irabazlea.
7. Partida jokatzean, egun horretan beste jardueraren batean parte hartzen ari denik bada, berak erabaki beharko du zeinetan jarraitu. Hala ere, partida baterako ordezkoa jar dezake. Dena dela, kanporaketa bakoitzari bikote guztiak aldi berean emango diote hasiera; ez da inolaz ere bost minutu

baino beranduagoko atzerapenik onartuko. Egoera horretan gertatzen den kidea zuzenean kanpoan geratuko da.

8. hala behar bada, txapelketa antolamenduko arduradunak egingo du epailearena.
9. Arduradunek irabazlearen izena zuzendariordeari jakinaraziko diote sari banaketa antolatzeko. Jai egunean ospatuko diren beste lehiaketetan irabazle gertatu direnekin batera egingo da, eguneko egitarauan adieraziko den orduan eta tokian.

Fitxen puntuazioa

Peoiak puntu bana

Dorreak bosna puntu

Alfilak eta zaldiak..... hiruna puntu

Erregina hamar puntu

JATORRIA	
EGILEA	Andoni Calvo
IZENBURUA	Xake Txapelketa
ARGITALETXEA/Webgunea	Argitaratu gabe (Ikastetxe barnean erabiltzeko)
URTEA	2008
ORRIALDEA (K)	
ISBN	
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Inprimatua
FORMATOA	Jarraia
MOTA	Azalpena-Jarraibideak
ERABILERA	Pribatua

JARDUERAK	
1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU	
1.1 Galdera	
Gehienezko luzera berbera izanen al dute txapelketako partida guztiek? Zehaztu denbora.	
1.1 Erantzuna	
Ez. Kanporaketako partida bakoitzak 30 minutu iraunen du gehienez. Azkenekoak, berriz, 40 minutu.	
1.1 OHARRAK	
1.2 Galdera	
Posible al da partida baterako ordezkoa jartzea? Zein kasutan?	
1.2 Erantzuna	
Bai. Baldin bada norbait egun horretan beste jardueraren batean parte hartzen ari dena partida jokatzeari.	
1.2 OHARRAK	
2. ULERMEN OROKORRA	
2.1 Galdera	
Hautatu testuaren zentzua hobekien islatzen duen adierazpena:	
<ul style="list-style-type: none"> a. Txapelketaren antolamenduko arduradunak egingo du epailearena. b. Txapelketan parte hartzeko orria. c. Biurdana BHIko xake txapelketarako arau nagusiak 	
2.1 Erantzuna	
c. Biurdana BHIko xake txapelketarako arau nagusiak	
2.1 OHARRAK	

2.2 Galdera
Adierazi paragrafo bakoitzaren ideia nagusia izenburu esanguratsu bat ezarriz.
2.2 Erantzuna
<ol style="list-style-type: none"> 1. Nola hartu parte txapelketan 2. Kanporaketa kopurua 3. Lehenengo kanporaketa 4. Hurrengo kanporaketak 5. Zer egin jokalarien kopurua bakoitia bada. 6. Partiden gehieneko iraupena 7. Kanporaketa bakoitza hasteko baldintzak 8. Epailea 9. Sari banaketa 10. Fitxen puntuazioa
2.2 OHARRAK
3. INTERPRETAZIOA-INFERENTZIAK
3.1 Galdera
Demagun partida bateko denbora bukatu dela eta partida ez dela amaitu. Jokalari bakoitzak dituen fitxak jakinda, erabaki zein izanen litzatekeen irabazlea.
<ol style="list-style-type: none"> 1. jokalaria: erregina, alfil bat, zaldi bat, 4 peoi. 2. jokalaria: 2 dorre, alfil bat, 2 zaldi, 5 peoi.
3.1 Erantzuna
2. jokalaria izanen litzateke irabazlea, bere piezen balioa handiagoa delako (24 puntu, 1. jokalariaren puntuazioa 20 izanik)
3.1 OHARRAK
3.2 Galdera
Testuan adierazten diren arauetan oinarriturik, nola jokatu beharko genuke berdinketa (“taulak”) kasu batean?
<ol style="list-style-type: none"> a. berriz ere partida jokatuko litzateke bi jokalari horien artean b. bi jokalarien arteko zozketa batek erabakiko luke nor pasako zen hurrengo kanporaketara c. biak hurrengo kanporaketara pasako lirateke d. biak eliminaturik geratuko lirateke.
3.2 Erantzuna
Aukera hori ez dago jasota; hala ere, arautegiaren zentzu orokorra kontuan harturik, erantzuna hauxe izango litzateke:
<ol style="list-style-type: none"> b. bi jokalarien arteko zozketa batek erabakiko luke nor pasako zen hurrengo kanporaketara
3.2 OHARRAK
4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA
4.1 Galdera
Osoa eta argia iruditzen al zaizu testuko informazioa txapelketa arazorik gabe aurrera eraman ahal izateko?

4.1 Erantzuna
Informazioa argia kontsidera daiteke, baina osoa, berriz, ez, aurreko galderan agerian geratu den bezala: “taulak” (berdinketa) kasua ez dago jasota.
4.1 OHARRAK
4.2 Galdera
Xakea joko bat izateaz gain, kontsidera al daiteke zerbait gehiago ere badela (adibidez: kirol bat, zientzia bat...)? Arrazoitu zure erantzuna.
4.2 Erantzuna
Erantzun librea. Galdera honen inguruko erantzunak hurrengo ideiarekin loturik egotea espero dezakegu: xakea adimena garatzeko jarduera, ariketa edo kirol antzekoa kontsidera daiteke.
4.2 OHARRAK
5. FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA
5.1 Galdera
Testua bederatzi paragrafo ezberdinetan banaturik dago. Zein da irizpide nagusia paragrafoak ordenatzeko orduan?
5.1 Erantzuna
Ekintzen jarraikortasuna denboran. Paragrafoen disposizioak orokorrean ordena kronologiko bati jarraitzen diote.
5.1 OHARRAK
5.2 Galdera
Zergatik dago idatzita beltzez 6. paragrafoa?
5.2 Erantzuna
Eskaintzen duen informazioa garrantzitsuena kontsideratzen delako. Izan ere, informazio hau partiden gehieneko luzerari buruzkoa da, eta, txapelketa egun berezi batean eginen dela eta beste ekitaldi batzuen artean kokatuko dela kontuan harturik, informazio hau funtsezkoa da.
5.2 OHARRAK